



## Oriak gainezka egin zuen zenbait lekutan

Herrizaingo Sailak alerta laranja ezarri zuen aste-bururako eguraldi txarra zela eta. Hala ere, igandearen gertatutakoa ezustekoa izan zen. Zenbait tokitan gainezka egin zuen ibaiak, ura garrajeetan sartu zen eta zenbait etxe argindarrik gabe geratu ziren hainbat orduz. **4/5. orrialdea**

## Ane Labaka eta Unai Muñoa Gpuntuko final erdietatik kanpo

Azpeitian jokatu zen Gipuzkoako Txapelketako azken final laurdena

Unai Muñoa eta Ane Labak ez dute Gpuntua Gipuzkoako Bertsolari txapelketako finalerdietan kantatzetik izango. Jokin Uranga nagusitu zen atzo Azpeitiako Izarraitz pilotalekuan jokatu zen azken final laurdenean eta zuzenean sailkatu zen azaroaren 26 eta 27an eta abenduaren 4an jokatu diren azken aurrekoetarako; Iker Zubereldia eta Iñaki Apalategik ere lortu zuten puntuen arabera sailkapena eta Muñoa, Xamoa eta Labaka kanpoan gelditu ziren.

Triste bukatu zuten beraz Lasarte-Oriako bi bertsolariak eta beraiek ikustera Azpeitiara hurbildu ziren herritarrak, igandean egin zuen zen giroa bezain triste.

Eguraldiak ez zuen lagundu, errepide batzuek moztuta egon ziren, ez zegoen eroso Azpeitira iristeko baina 1.700 lagun inguru hurbildu ziren Gpuntua Txapelketako azken final laurdenera, eta Azpeitiko Izarraitz pilotalekua ia bete egin zuten zuten.

Zailtasunak zailtasun bi lasarte-oriatar ziren saioan, Ane Labaka eta Unai Muñoa, beraz herritar asko hurbildu ziren bertara. Ordu laurdenean atzerapenarekin hasi bazen ere txalo zaparradak hasiera hasieratik izan ziren parte hartu zuten sei bertsolarien zentzuz.

Saio guztian zehar aritu ziren txukun bi lasarte-oriatarak, agian gutxien, elkarrekin

aritu zirenean gozatu zuten, koplatan sex-shopean elkartu diren koadrilako bi lagunaren paperean, eta bakarka ere ondo aritu ziren.

Ane Labakak ale ederrak utzi zituen, "haurrak aitatxo gaiztoa al da galdetu dizu" gaiarekin, Valdemoron preso den haurraren aitari kantatu zion "Gure bihotza eraman zuten berearekin batera"; "eraman zuten aitatxo urrutira, gu ez gara txintxoak baina gaiztoak beraiek dira" eta "presta ezazu larroxa gorria, laster egingo diogu gure ongi etorria" bukaerarekin.

Unai Muñoa ere ondo aritu zen bakarka, eta gainera bere burua promozionatzeko aukera izan zuen. "Gazte gaztetatik

argi zenuen 40 urte bete arte ez zenuela haurrik izango. Gaur bete dituzu 40 urte" gaiari erantzunez, "umerik ez nuen espero baina neska laguna bai" bota zuen lehenengoan, "ez da erraz eramaten bakardadearen mina" bigarrenarean eta "ez naiz itsusi etorri, jarraitzen baitut bila, norbaitek gustuko bainau, gero etorri dadila" hirugarrenarean, bere burua goraiatu eta gero, "behar denean artoa, behar denean umila, behar denean hiztuna, behar denean isila, ez da erraz topatzen ni bezalakoa mutila, erromantikoa, bertsotan abila,..."

Beraz, finalaurrenetan utzi dute txapelketa, Otamendi, Muñoa eta Labakak eta Amaia Agirrek segituko du. •

## Metal doinuak ostiral gauean Abend-en

Heavy metal gaua izan zen ostiralekoa Abend antzokian. Hiloz talde lasarteoriatarra eta Korumbá orerretarra izan ziren gaueko bi protagonistak. Doinu bortitz eta sakonak uztartu zituzten, euskarazko eta ingelesezko letrak tartekatuz. Beraien kantu propioez gain, metal talde ezagunen bertsioak ere jo zituzten. Jende asko bildu zen bi kontzertuak ikustera, Lasarte-Oriak betidanik izan baitu heavy metal talde sorta polita, eta belaunaldi gazteek oraindik bide horri eusten diotela argi geratu zen ostiral gaueko kontzertuetan. •



Hiloz talde lasarteoriatarrek kontzertu beroa eskaini zuen ostiral gauean Abend-en.

### ALBISTEA /2

Munduko hainbat tokitako irudiak asteazkenero Jalgi Kafe Antzokian

### ALBISTEA /3

Osasun Astearen egitarauan bost hitzaldi interesgarri ostiralera bitartean

### ALBISTEA /5

DYAk atzeratu egin ditu 25. urteurreneko ospakizunak

ALBA  
ARROPA DENDA



KOOKAI  
NAFNAP  
YERSE

Iritsi dira  
udazken eta neguko jantziak !

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 574450

Eguneroko menua  
Astebukaerako menua  
Karta  
Bokatak  
Razioak  
Plater konbinatuak  
.....

txintxarro  
erretegia

Txikierdi Auzoa, Iguarte Kalea 11 (Urbilen parean)  
20170 Usurbil • Tel.: 943 369964

# Bidaiazaleen hitzordua Jalgin

■ Jalgi Kafe Antzokiak azaroko asteazkenetarako diaporama bilduma antolatu du herriko zenbait lagunek egindako bidaia ardatz direla ■ Lehen saioan Dolomitak eta Maroko dira protagonistak

Asteazkenean hasiko dira Ttakun Kultur Elkartek Jalgin antolatutako diaporama saioak. Urtero legez, hainbat herritarrek munduan zehar izandako esperientziak azalduko dituzte irudien laguntzarekin.

Aurten bost herrialdek izango dute presentzia antolatutako lau emanaldietan Italiako Dolomitak, Maroko, Tanzaniako Kilimanjaro, Mexiko eta Etiopia. Guztiak 21:30ean hasiko dira hilaren 9, 16, 23 eta 30ean, asteazkenetan, alegia.

## Mendiz mendi

Ttakunek prestatutako egitarauan lehenengoak, Alex Tetuan, Tomas Maiz eta Txomin Otaegi izango dira. Hiru mendizaleek hamalau egun egin zituzten Dolomita mendilerroan paretak eskalatu eta gailurretara igoaz. Han bizi eta ikusitakoak azalduko dituzte.

Dolomitak mendilerroa Italiako Alpeetako parte da. Paraje ederra izateaz gainera, historiari betetako txokoa da. Lehen Mundu Gerran Italia eta Austria-Hungariako inperioko armaden arteko frontea bertan kokatuta egon zen eta iragan horren arrastoak ageri dira oraindik, lubaki edo trintxerak esaterako. Dolomitaz gain, Alex Tetuanek Marokori buruzko diaporama ere prestatu du.

Mendia utzi gabe, azaroaren 16an Jexus Mari Presaren txanda izango da. Presa aurreko hiru lagunentzako, mendizale amorratuak da eta horregatik Kilimanjaro mendia tontorra izan du aurtengo udako erronka.

Kilimanjaro Afrikako gailurrik altuena da 5.895 metroekin eta Tanzaniako kokatuta dago. Sumendiaren gailurrera iristea gain, egun batzuk pasa zituen Presak Kenya eta Tanzaniako besteak beste, animalia

basatiak ikusteko safari bat egin eta Masai tribua bertatik bertara ezagutzen.

## Esperientziak

Mendizaleetasunaz harago, herrialdeak eta bestelako kulturak ezagutzeko helburuarekin egindako bidaia ere izango dira ikusgai.

Afrikatik Ertamerikara egingo da salto. Azaroaren 23an Aitor Abxegak hartuko du hitza. Argazki koloretsuak izango ditu lagun Mexikon biziakoak azaltzeko. Aurten oporraldia bertan egin du ahal bezain beste herrialdea ezagutzeko asmoarekin.

Azkeneko diaporamarekin berriz Afrikan murgilduko dira bertaraten direnak. Etiopia, egindako bidaia inguruan ariko dira Maider eta Ane Galardi eta Oihan eta Izar Agirretxe. Herriko lau gazteek guraso eta beste hainbat lagunekin Etiopian barrena ibili ziren. Bertakoen bizimodua ikusi ahal izan zuten eta eurekin sortutako harremanaz mintzatuko dira diaporama saioei bukaera emanez.

Diaporama hauek bidaiazaileentzat aukera polita dira munduan zehar dauden txoko eta herriak etxetik mugitu gabe ezagutzeko. Agian hurrengo oporraldia prestatzeko laguntza ere izango dira Jalgin entzun eta ikusitakoak.

## Diaporamak

Saio guztiak, 21:30ean  
Jalgi Kafe Antzokian

### Azaroa

**9 Dolomitak eta Maroko**  
(Alex Tetuan, Tomas Maiz eta Txomin Otaegi)

**16 Kilimanjaro**  
(Jexus Mari Presa)

**23 Mexiko**  
(Aitor Abxega)

**30 Etiopia**  
(Maider eta Ane Galardi, Oihan eta Izar Agirretxe)



Alex Tetuan irudian Castelletto gailurra atzean utzita Brenta mendigunerantz.



Etiopian zenbait herritako biztanleak ezagutzeko aukera izan zuten Maider eta Ane Galardi eta Oihan eta Izar Agirretxe gazteek.



Kilimanjara igo ostean, animalia basatiak ikusteko aukera izan zuen Jexus Mari Presak Tarangiren eta Maynara lakuaren inguruan egindako safarian, besteak beste, elefante hauek.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.  
Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.  
Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# PSE-EE zerga igoeraren alde

Herrian enpresa berriak ezartzeko hobari fiskalak aurreikusteko eskatzen dute sozialistek

Jesus Zaballos sozialistaren jagerraldian, udal gobernuak 2012rako aurkeztutako ordenantza fiskalei bere taldeak egindako zuzenketa mordo azaldu ditu nahiz eta proposatutako %1,7ko igoeraren alde egon.

Lehen zuzenketa bilduma, herrira enpresa berriak erakartzeko neurriak dira. Udal gobernuak tasa guztietan %1,7ko igoera aurreikusi du 2012rako. Datorren urteko KPI, kontsumorako prezioen indizearen arabera. Enpresen kasuan, udal gobernuak jardura ekonomikoaren gaineko zerga eta bestelako tasa batzuk bere horretan uztea erabaki du pizgarri moduan.

Sozialistentzat hau ez da nahikoa "enpresak aurretzen duen dirua gutxi delako" eta horregatik Zaballosen hitzetan "enpresentzat benetako neurri erakargarriak" proposatzen dituzte. KPIa enpresei ere igotzea litzateke lehena "herritarrek pairatu beharreko udal tasen igoera hori enpresek ere ordaintzea delako logikoa". Bestetik, herriko komertzio txikien "iraupenaren alde" egiteko, %90eko

gainbalioaren zergan hobari fiskala aplikatzea herentzia zuzenagatik jasotako negozioen kasuan. Gainera Lasarte-Orian ezartzen diren enpresa berrientzat urte betez jardura ekonomikoaren gaineko zerga ez ordaintzea proposatzen dute.

Lanpostu berriak sortzeagatik enpresek onurak izango litzateke sozialisten arabera, besteak beste, jardura ekonomikoaren gaineko zergan %75eko hobaria. Halaber, abenduaren 31 baino lehen ixten duten negozioiek, urte osoagatik ordaindutako tasa berreskuratzeko aukera izatea eskatzen da. Hau da, udalak negozioa zabalik egon denagatik zergak kobratzea.

## Birziklatzeagatik saria

Bigarren ardatza, zaborraren inguruko neurriak dira. Zabor bilketak sortzen duen defizita kontutan izanda, "zuloa ez handitzea" honen tasa 2012an %1,7 igo beharrean, %3a proposatzen dute sozialistek. Alabaina, birziklatzea sustatzeko Zaballosen ustetan neurri ona litzateke, 2012an herrian hondakinen %50 bir-



Lasarte-Oriako alderdi sozialistako kideak 2012. urterako ordenantza fiskalak direla eta ostiralean egindako agerraldian.

ziklatzekotan, 2013an zaborren tasa erdira murriztea esfortzua saritzeko. Zaborraren tasa merkatze, herritar eta enpresek gehiago birziklatu beharko lukete sozialistek proposatutakoa onartuko balitz.

## Entrenamendu abonua

Azkenik, hirugarren ardatza, sozialistek herriko elkarteekin bere garaian hartutako konpromisoak betetzeko zuzenketak lirateke. Batetik kiroldegian "entrenamendu

abonua" sortzea. Honen kostua abonua arruntaren erdia litzateke eta bertan zehaztutako litzake erabiltzailearen entrenamendu egunak eta orduak. Horrela, igerilekura entrenatzera sartzeko izango luke erabiltzaileak baina ez kiroldegiko beste instalazioetara.

Bestalde, Jalgune klubari udalak %10eko igoera ezarri nahi diola aurreratu du Zaballosen. Bere desadostasuna azaltzeko, ordenantza fiskaltan gainontzeko elkarteei

bezala %1,7a aplikatzea eskatu dutela esan du.

Sozialistentzat "udal gobernuak argi utzi du ordenantza fiskalak behar bezala egiteko gai ez dela". Izan ere, "plangintza kaxkara egin dute eta aurkeztutakoa ez dator bat bizi garen momentu ekonomikoarekin". Zaballosentzat, Diputaziotik jasoko den dirua asko murriztuko dela ahazten zaiela dirudi eta euren zuzenketek gainontzeko alderdien babesa jasotzea espero dute. •

## Gaixotasunei erantzuteko bizimodu osasuntsua

Astelehenetik ostiralera Villa Mirentxu etxeko beheko solairuko aretoan burutuko den Osasun astean hainbat gai interesgarri jorratuko dira, gaixotasunei nola erantzun baino, ez gaixotzeko zer egin behar den ezagutarazteko. Hain juxtu hori da, osasunari gaixotasunari baino garrantzia gehiago ematea, osasunari buruzko jardunaldi hauen helburua Nerea Sanchez alkateordeak adierazi digunez. Sexu harreman osasuntsuak, elikadura eta emozioak, odol arintzeko Sintrom botika, odol emaileak eta alkoholismoa dira aurtengo hitzaldien gaiak.

Osasun Astea azaroaren 7tik 11ra, astelehenetik ostiralera, burutuko da aurtengo Villa Mirentxun eta osasunari helduz: Nerea Sanchezen iritiz, aurreko urteetako egitarauak ikusita konturatu da gaixotasunei eta erantzunei buruz hitz egin dela "eta hori ondo dago, baina jakin behar dugu nola bizi modu osasuntsuan, horregatik deitzen da Osasun Astea".

Beraz "ez gaixotzeko nola jokatu" jakin dezagun, aurtengo, proba bezala, zerbait desberdina ekarri nahi izan dute eta

beste mota batetako hitzaldiak antolatu, daukaten erantzuna ikusteko: horrela, esaterako sexu harreman osasuntsuek edo elikadurak bizitzan duten eragina ezagutzeko aholkuak emango dira.

## Bost hitzaldi

Guztira bost hitzaldi eskainiko dira arratsaldeko 19:00etan Villa Mirentxuko beheko solairuan dagoen aretoan, hasteko adituek euren azalpenak emango dituzte, gazteleraz, eta ondoren nahi diren komentario eta galderak



Villa Mirentxuko beheko solairuan burutuko da aurtengo Osasunari buruzko Astea.

■ XIX. Osasun Astea, Villa Mirentxun, astelehen honetatik ostiralera 19:00etan

■ Sexu harremanak, elikadura, odola arintzeko Sintrom botika, odol emaileak eta alkoholismoa.

Bost gai, bost egunetan

egiteko aukera egongo da nahi den hizkuntzan.

Astelehenean eskolatan gazteekin sexologia jorratzen duen Lilima taldekoek "Bikote harreman osasuntsuak eraikiz" hitzaldia emango dute kasu honetan pertsona helduentzako.

Asteartean Egoitz Garro makrobiotikan adituak "Elikadura eta sentimenduak" gaia jorratuko du.

Asteazkena odol emaileei eskainiko zaie, goizetik odol ematearen inguruan informazioa emango dute Okendo Plazan eta arratsaldeko 19:00

"Odol emaileen etorkizuna" gaia jorratuko du Xabin Urzelaik.

## Sintrom botika aztergai

Ostegunean, osasun zentroak proposatuta zalanza eta galdera asko eragiten dituen Sintrom botikari buruzko argibideak eskainiko dituzten bertako Amets Arruabarrena mediku eta Rosa Gaintza erizainak gaixo eta senideentzat.

Nerea Sanchezek jakinarazi zigunez, Osasun zentroarekin harremanetan jarri ziren jakiteko euren zein gai ikusten zuten herritarrentzat interesgarri eta hasieratik aipatu omen zuten odola arintzeko erabiltzen den Sintrom botika, jende askok hartzen duelako, askotan zertarako jakin gabe eta kezka-zalanza asko sortuz hartzaile eta senideen artean.

Azkenik ostiralean Alkoholismoa Anonimoak taldeko bi kidek eta Kristina Saez de Arregi psikiatrak "Alkoholismoa, gaixotasun bat" jorratuko dute. Antolatzaleei egokia iruditu zitzaizen astero astero Villa Mirentxun bertan elkarte honetako kideek egiten duten lana borobiltzeko gai hori jorratzea jardunaldien barruan. •




Asteburu honetan bota duen euria, hilabete osoan espero bezainbeste izan da. Herrizaingo Sailak 'Uholdeetarako Plana'ren bigarren fasea ezarri behar izan du.

## Haserretu egin zen Oria ibaia

■ 1997ko ekainetik ez du ibaiak hainbesteko emaririk eraman eta hainbat bizilagunek 1983ko uholdeak izan dituzte gogoan ■ Gainezka egiteak kalteak eragin ditu garaje eta baxuetan

Natura hasarretzen denean, ezer gutxi daukagu egterik gizakiok. Igandean ama naturak bere indarra erakutsi zuen Euskal Herri osoan zehar eta Lasarte-Oria ez zen salbuespena izan. Herrizaingo Sailak astebururako aler-ta laranja ezarria bazuen ere, igandean gertatutakoa ezustekoa izan zen. Herriko zebait txokotan gainezka egin zuen ibaiak, ura garajeetaraino iritsi zen eta zen-bait etxe argindarrik gabe geratu ziren hainbat orduz.



Ibaia 970m<sup>3</sup>/s -ko emaria izatera iritsi zen zenbait unetan. Batz bestekoa, 25m<sup>3</sup>/s du.



Ibaia gainezka egitear zela, estolderiek ez zuten ur gehiagorik hartzen. Horregatik, bizilagun askok kalteak jasan zituzten.



# DYAren 25. urteurreneko bazkaria

Eguraldi txarrak iganderako prestatuta zeuden ekitaldi guztiak atzeratu ditu

Zapore gazi-gozoa izan zuen larunbatean DYAko lagunek Dana-Ona jatetxean egin zuten bazkariak. Izan ere, alerta laranja ezarri zuen Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailak aste-bukaera osorako eguraldi txarra zela medio. Hori dela eta, iganderako prestatuta zeuden ekitaldi guztiak atzeratu egin behar izan zituzten. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, oraindik ez dute atzeratutako ekintzak egiteko datarik ezarri. Baina seguruenik, 2012ko urtarrilean egingo direla ohartarazi dute.

**E**guraldi txarrak astebururako herrian prestatuta zeuden hainbat ekitaldi bertan behera uztera behartu zuen eta kaltetuetako bat, DYA elkartearen izan zen.

Izan ere, iganderako prestatuta zeuzkaten ekintza guztiak atzeratu egin behar izan zituzten, seguruenik, datorren urtera arte.

Hala ere, Larunbatean bazkaria egin zuten Dana-Ona jatetxean eta Lasarte-

Oria zein Usurbildik etorritako 60 bat lagun bildu ziren bertan. DYAko lagunek gain, herriko hainbat elkarteetako kide eta udal ordezkariak ere joan ziren bazkarira.

## Bazkalosteko ekitaldia

Bapo bazkaldu ostean, azken 25 urte hauetan ataratako argazki desberdinez osatutako bideo erreproduzioa ikusi zuten jantokian.



Jaten hasi aurretik, taldeko argazkia atera zuten bazkarira bertaratu ziren guztiak.

Bazkarira bertaratutako pertsona bakoitzak DYAren argazkiak jasotzen zituen pendrive bat jaso zuen opari.

Ostean, aipamen berezia egin zitzaion azken urteotako ibilbidean paper garrantzitsua jokatu duten hainbat pertsonari eta lore-sorta bana bana

tu zitzaion mende laurden honetan egindako lana aitortuz. Hauek, esker oneko hitzak eskaini zizkieten bazkariko mahaikideei. •





LOKEko padel atalak ikastaroak eskainiko dizkie kirol honetan trebatu edo teknika hobetu nahi duen herritarrei.

## Padeleko ikastaroak hilaren amaieran hasiko dira

■ Haur, zein helduentzako ikastaroak egongo dira astean zehar ■ Loidi-Barrengo pistan izango da

**L**OKEko padel atala hila-bete honen amaieran lanean hasiko dela aurreratu digu, ataleko ordezkariak Eli Lorezok.

Ia urte bete itxaron eta gero, "bi aste barru Udak kirol instalazioetako padel pista ikastaroak ematen hasi nahi digu," adierazi digu.

### Banaka edo taldeka

Ataleko arduradunak azaldu digunez, banakako, zein taldeko saioak egingo dituzte, "ume, nahiz helduentzako ikastaroa izango da eta maila guztiei zuzendua."

Haurren kasuan 7 urtetatik aurrerakoek izen eman ahal-

ko dutela azpimarratu du eta taldeei dagokionez, mailaren arabera egingo dituztela.

### Orduak eta egunak

Oraindik Lasarte-Oriako Udak klubak egindako egun eta ordutegi proposamena onartu behar duela jakin arazi digu Lorezok.

Halabaina, astean zehar lau egunetan ikastaroak egotea dute asmoa, "bai goizez, baita arratsalde. Larunbatean, ikusiko da. Jendearen eskaeren arabera izango da hori."

### Materiala

Materialari dagokionez, Eli

Lorenzo irakasleka azaldu digunez, "lehenengo asteetan proba moduan egon daitezke eta horietan, materialik ez badute, nik utzi ahal dizkiet palak".

"Aurrera jarraitzen badute, aholkuak eskainiko dizkiet, zein eratako pala erosi behar dute, etab. jakin dezaten," atxiki du.

### Izena ematea

Beraz, padelean lehenengo pausak eman edo teknika garatu nahi duen herritar orok, orain dauka aukera. Egin beharreko gauza bakarra Eli Lorezorekin harremanetan jartzea da, 687 632 737 zenbakian. •

### UDALBATZARRA

## Kredituak eta Atsotakarrek defizita aztergai biharko Udalbatzarrean

Bihar, azaroak 8, arratsaldeko 17:00etan Udalbatzarreko ohiko bilkura izango da.

Hilabete honetako gai zerrendan, 2011 ekitaldian kredituak aldatzeko gaur arte bideratu diren dosierren berri ematea eta kreditu gehigarrien kredituak aldatzeko dosierri onesteko proposamena daude.

Honetaz gain, udaleko talde sozialistak Gipuzkoako Foru Aldundiari dagozkien eskumenak bere gain ez hartzeak udalari sorrarazten dion defizitari buruz aurkeztutako mozioa ere ezta-baidatuko da.

Era berean, ekaineko 8ko datadun alkatetzako dekretuaren berri emango da. Azkenik, alderdiek eta herritarrek galderak eta erreguak egiteko aukera izango dute. •

### TSST AUTOBUSAK

## Autobusa Askatasuneko Etorbidean hartuko da Donostian gaurtik aurrera

TSST autobus konpainiako zuzendaritzak jakin arazten du gaur, azaroaren 7tik aurrera, bere zerbitzuek, Donostia-Lasarte -T1, Donostia-Andoain-T3, Donostia-Asteasu-T4 y Donostia-Tolosa-T5, Donostian terminal aldaketa izango dutela.

Orain arte, Gipuzkoa enparantzan zegoen geltokia, Askatasuneko etorbideko 24 zenbakira lekualdatuko da.

Aldaketa honek Donostiako Udalaren proposamenari eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren aginteari ematen dio erantzuna. Hemendik aurrera, Gipuzkoa enparantzako kokalekua Seminario eta Igeldora doazen autobusentzat izango da. •



### IPUIN KONTALARIAK

## Aho zabal egon ziren haurrak

Lehenengo asteazkenean, barre, algarak, hitzak eta isiluneak izan ziren nagusi Manuel Lekuona kultur etxeko haur liburutegian. Izan ere, 5, 6 eta 7 urteko gaztetxoek Koruko Zurutzaren hitzei adi jarraitzen baitzieten eta hark kontatutakoari erantzuten zioten.

Honela Ipuinaren ordura hurbildu ziren haurrek haiek bezalako umeei gertatutako abenturak eta ezbeharrak ezagutu zituzten.

Hurrengo saioa bihar, asteartea 18:00etan izango da. Hone-tan, Pello Añorgak 4 eta 5 urteko gaztetxoei zuzendutako saioa eskainiko du. •



Haurrek adi jarraitu zituzten pertsonaia desberdinen nondik-norakoak.

## Herriko gazteen Lip dub-aren grabaketa azaroaren 20ra atzeratu da

**K**uadrillategi eta Gazteklubeko gazteek lib dub-a grabatzea aurreikusia zuten larunbatean Okendo plazan. Tamalez, eguraldia dela eta, ekintza egunez aldatu behar izan dute.

Data berria, azaroaren 20a, igandea da eta orduari dagokionez ere aldaketa egongo da, izan ere hitzordu berria eguerdian, 12:00etan izango da.

Orduan gaztetxoek erakutsi ahaliko dute Pirritx eta Porrotxen Mari Kalanbre abestiarekin prestatutako koreografia.

Antolatzaileek gogora arazten dute ekimena irekia dela eta nahi duenak parte har dezakeela honetan.



Herriko gaztetxoek Marikalanbre abestiarekin egingo dute azaroaren 20an Lip dub-a.

Beraz dantzatzea gustuko dutenek aukera paregabea dute Okendo plazara hurbil-

du eta egun horretan gaztetxoek antolatutakoarekin primeran pasatzeko. •

## Egunero

### Erakusketa

SOFIA AROSTEGIREN APUNTEAK erakusketa zabalik da azaroan zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN

## Asteartea, 8

### Ipuin-kontalaria

PELLO AÑORGAK 4 ETA 5 URTEKO gaztetxoei zuzendutako IPUI-NAREN ORDUA eskainiko du. KULTURETXEKO HAURREN LIBURU-TEGIAN, 18:00etan, EUSKARAZ.



## Asteazkena, 9

### Diaporama zikloa

TOMAS MAIZ, ALEX TETUAN eta TXOMIN OTAEGIK MAROKO eta DOLOMITETARA egindako bidaien berri emango dute. JALGI KAFE ANTZOKIAN, 21:30ean.

## Osteguna, 10

### Kontzertua

KARMA DUO taldeak Kubako doinuez beteriko kontzertua eskainiko du. ZABALETAN, 19:00etan.

## Ostirala, 11

### Diska aurkezpena

MIREN FERNANDEZ abeslariaren



## XIX. Osasun asteko hitzaldiak Villa Mirentxun

Lasarte-Oriako Udalak antolatuta, NOLA JOKATU BEHAR DEN EZ GAIXOTZEKO izenburupean XIX. OSASUN JARDUNALDIK izango dira gaurtik ostiralera Villa Mirentxun. Aurreko gaitasunei baino osasunari berari garrantzia eman nahi izan diote.

GAUR ASTELEHENA 7-OSTIRALA 11  
19:00ETAN  
VILLA MIRENTXUN

diska berriaren aurkezpena: "LAZTANTZEN NAUEN ESKUA". MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEAN, 20:00etan.

### Kontzertua

SKAKEITAN taldeak ska, reggae eta rock doinuez betetako kontzertua eskainiko du. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, 23:00etan.

## Larunbata, 12

### Antzerkia

HAURENTZAKO ANTZERKI sailaren barruan, Erre produkzioak ingurumenarekin zer ikusia duen ANTARTIKAKO LOREA antzezlan eskainiko du. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 18:00etan, EUSKARAZ. Sarrera, 3,30 euro.

## Igandea, 13

### Zinea

OTRA PELÍCULA DE HUEVOS Y UN POLLO marrazki bizidunetako film dibertigarria ikusteko aukera egongo da, HAURENTZAKO ZINEA sailaren barruan. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 18:00etan, GAZTELANIAZ. Sarrera, 3,30 euro.

## Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00  
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00  
Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18  
Tel.: 943 376181

## Esazu irratiko programazioa



### Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:30etik 10:45era

## Eskutitza

### Bazen garaia!

Pasa den maiatzean ospatu ziren hauteskundeen harira, Txintxarrik Ezker Abertzaleak izenpetutako gutun bat plazaratu zuen; bertan, "Ez dugu onartzen!" izenburua zuen testuan, kritika zorrotza egiten zitzaion hauteskunde afixak itsasteko ezarri zituzten egurrezko paneletan agertzen zen joera erdaldun elebarkarri eta hurrengorako udal arduradunei euskaraz bizitzeko hautua egin dugunon hizkuntza eskubideak errespetatu eta gutxienez elebitasuna bermatzeko eskatzen zen.

Asteazkenean ikusi nituen etxe parean berriro ere ditxosozko panelak, baina hara! "elecciones" delakoaren azpian "hauteskundeak" ageri dira indartsu, ozen, duintasunez eta inongo lotsarik gabe. Aldaketa handiak emateko beharrezkoa den pausu txikia, askorentzat txorakeria izango den arren asko eta askori aurrepean irribarra sortaraziko dion egokitzapena horratik!

Lerro hauetatik zoriorenak pausu hau ahalbiderratu duten udal ordezkariak, aurrera!

Aitzol Lasa Letona

## Dagokionari



### Zaindu beharrekoa

Irakurle batek bidali digu goiko argazkia, "zaindu beharreko hanka-sartea, Udaletxearen ondoan" testuarekin. Bertan obratan aritu den enpresak ekarri eta jarritakoa dela esan digute udaltzaingoa. Udalak, jakin bezain pronto, hartu ditu zuzentzeko neurriak. Irakurleak dioen bezala zaindu beharreko kontua da eta ez errepikatzen modukoa.

## Oharrak

### EHNArekin bozkatu

Bai Euskal Herriari taldeak deialdia luzatu nahi die herri-tarrei azaroaren 20ko Estatuko Parlamentuko hauteskundeetan Euskal Herriko Naziotasun Agiriarekin (EHNA) bozkatu dezaten.

### 1962. urtean jaioetakoen afaria

1962. urtean jaioetako lasarte-arentzat afari bat antolatu dugu azaroaren 12rako, Daka-rajatxean.

Interesatuak 50 euroko diru sarrera egin behar dute, azaroaren 5erako, honako kontu korrante zenbakian,

3035 0036 12 0360082971. Argibide gehiagorako, deitu: 646 274 376 (Bea) /659 950363 (Rexu). Anima zaitetz!

### Alboka abesbatza

Alboka abesbatzak 65 urte arteko herritarrek animatu nahi ditu parte hartzera.

Entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizapiko aretoan. Anima zaitetz!

### Marrazki eta margo eskolak

Lasarte-Oriako Bizilagunen elkarteak marrazki eta margo

eskolan oraindik plazak badaude.

Eskolak asteazkenetan eta ostiraletan 18:00etatik 19:00etara eta larunbatetan 09:30etik 11:30era izango dira. Interesa dutenek kulturetxeko 2. solairura jo behar dute.

### Udako Txokoetako argazkiak

Gaur, urriaren 17tik aurrera prest egongo dira Udako Txokoetako argazkien CDak.

Txokoetan ibili direnen haur guztiei banatuko zaizkie eta jasotzeko Ola kalea 1ean dagoen Amaraun Ludotekatik

pasa behar da 17:00etatik 20:00etara azaroaren 25a arte.

### Euskal Dantza taldea

Landaberri BHIIn entsaiatzen duen Euskal Dantza taldea, Felix Telleriak zuzendutakoa, lanean hasi da.

Entseguak astearte eta ostegunetan izango dira 20:00etatik 21:00etara.

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

# Lasarte-Oriaren izena zabaltzen

- Katalunian barrena bidaia arrakastatsua egin zuen urrian Zero Sette akordeoi orkestrak
- Alboka abesbatzak El Puerto de Santa Maria, Cadizen, eskaini zuen kontzertu paregabea

Euskadiko egunak, urriaren 22tik 25era, sortu zuen zubiaz baliatuz herriko Zero Sette akordeoi orkestrak eta Alboka abesbatzak Estatu-ko puntu desberdinetara egin zuten bidaia gure kultura eta folklora zabaltzeko asmoz. Zero Sette akordeoi orkestra Bartzelona eta Sabadell aldera joan zen Trintxerpeko Illunbe orkestrarekin batera Saba-

dellgo orkestraren XX. urteurren ospakizunean parte hartzeko; Alboka abesbatzak, aldiz, Andaluzia aldera jo zuen. Herriko abesbatzak El Puerto de Santa Maria herriko El Jardin de Schöberg abesbatzari bisita bueltatu eta, bide batez, Cadiz ingurua eta Sevilla ezagutu zituzten abesbatzeko kide eta bazkideek.

**L**asarte-Oriako Zero Sette Akordeoi orkestrak eta Alboka abesbatzak gure herriaren izena eta gure kultura eraman dute Katalunia eta Andaluzia aldera. Sabadellgo akordeoi orkestrak eta El Puerto de Santa Mariako "El Jardin de Schöberg" abesbatzak egindako gonbidapenei erantzunez egin zituzten bidaia herriko bi taldeek eta arrakasta handia izan dute haien emandietan.

## Urteurrena

Zero Sette akordeoi orkestra Katalunia aldean izan da. Bertan Sabadell eta Bartzelonan kontzertu bana eskaini zituen Trintxerpeko Illunbe orkestra lagun izan zuela.

Aipatu legez, Sabadellgo orkestraren XX. urteurrena ospatzeko ekintzetan parte hartzeko gonbitearekin egin zuen Kataluniarako bidaia Zero Sette orkestrak.

Lasarteoriatarrek Unim auditorioan antolatutako kontzertu nagusian izan ziren, Illunbe eta Sabadellgo orkestrarekin batera.

Emanaldi arrakastatsua honetan talde bakoitzak bere saioa eskaini zuen. Herriko taldeak estilo desberdinetako lanak taularatu zituen, hala nola, G. F. Händelen "La Llegada de la Reina de Saba" doinu

klasikoa, "El Baile de Luis Alonso" eta "El Tambor de Granaderos" zartzelak edo jazz kutsua duen "Duke Ellington in accordian" abestia.

Eta kontzertu bereziari amaiera borobila emateko, Elias Goikuria, herriko taldearen zuzendariak moldatutako Jörg Draeger-en "Russische Fantasie" lana batera jo zuten hiru orkestrak.

Sabadellen gainera, herriko akordeoi orkestrak Lasarte-Oriako ordezkari lanak egin zituen bertako udal taldeek eskaintako harrera ofizialean.

Talde lasartearrak bertako orkestraren urteurren ekimenetan izateagatik oroigarria jaso zuen eta bere aldetik, Zero Sette-ko Maite Janeiro eta Elias Goikuriak Lasarte-Oriako udal txarearen izenean udal ordezkari oroigarria eman zieten.

## Harrera beroa Bartzelonan

Hurrengo egunean, Zero Sette eta Illunbe orkestrak kontzertua egin zuten Bartzelonako Cuenca Etxean.

Bertara jende asko gerturatu zen eta horren adibide izan zen emanaldiaren bukaeran bertaratutakoek taldeei eskainitako txalo zaparrada luzea.

Herriko taldea pozik azaldu da Katalunia aldean jasotako harrera beroarekin baita egindako lan txukunarekin.



Zero Settekoen hurrengo kontzertua Valladoliden izango da abenduaren 2an bertan egiten den akordeoi jaialdian. ZERO SETTE

Zero Setteren hurrengo kontzertua, abenduaren 2an izango da "Ciudad de Valladolid" IX. akordeoi jaialdian.

## Alboka Cadizera

Egun horietan, gure herriko Alboka abesbatzako berrogei bat kide eta bazkideek ere Cadiz aldera egin zuten bidaia.

El Puerto de Santa Mariako "El Jardin de Schöberg" abesbatza apirilean gure

herrira etorri eta kontzertu paregabea eskaini zuen Ama Brigitarren komentuan.

Orduan, Cadizeko abesbatzak gonbita egin zion Lasarte-Oriako abesbatzari eta horri erantzunez egin zuen Albokak lau egunetako joan etorri hau.

## Talde mixtoa

Gauzak honela, Kristina Perez Abreu eta Montse Latorrek zuzentzen duten taldeak El Puerto de Santa Mariako Espiritu Santu elizan kontzertua eskaini zuten, urriaren 22an.

El Jardin de Schöberg abesbatzak eman zion hasiera emanaldiari Garcia Lorca-ren hitzetan onarritutako "Canto de la tierra" eta "Summer time" doinuekin.

Lasarte-Orian El Puertoko taldea emakumeen abesbatza bezala aurkeztu bazen ere, haien herrian abesbatza mixto formatuan entzuteko aukera izan zuten Albokako kide eta lagunek.

## Adeitasuna

Jarraian, Lasarte-Oriako abesbatzaren txanda izan zen eta Espiritu Santu eliza bete zuten ikusleen beroa eta adeitasuna jaso zuen bere lehenengo kantutik. Euskal jantzia soinean

bertan zeuden guztiei ongi etorria egin zien abesbatzak agurra abestu eta dantzatzuz.

Kontzertuan eliz abestiak eta folklora uztartu zituen herriko taldeak. Esate baterako, "Kitolis" edo J. Bustok moldatuako "Porrusalda" eskaini zituzten eta txalo zaparrada handia jaso zuen Albokak.

Eta kontzertuari amaiera emateko bi abesbatzek batera bi lan abestu zituzten: batetik, emakumeak bakarrik X. Sarasolaren "Ave Iesu" kantatu zuten bi tronpen laguntzaz eta, bestetik, guztiek batera "A la fuente del Olivo" kordoba aldean egindako kopia.

## Oroigarriak

Baina guztia amaitu baino lehen, oroigarri banaketa izan zen. El Jardin de Schöberg abesbatzak bi taldeen argazkiekin egindako koadroa eman zion Albokari; Academia de Bellas Artes Santa Ceciliaen eskutik, domina eta Albokak, aldiz, Lesbordes-en Kantuz abestiaren hitzak idatziak zituen makila oparitu zion El Jardin de Schöberg-i.

Era berean, larunbat honetan Alboka herriko abesbatzak Legazpian izan du kontzertua, SantiKutz abesbatzak antolatuta. •



Alboka abesbatzako kideak Estatuko hegoaldera egindako bidaian, besteak beste, Sevillako errege-alkazarra ikusi zuten. I. OLANO